

Justizia Administrazioa

BILBOKO LEHEN AUZIALDIKO 6 ZENBAKIKO EPAITEGIA

5166

EDIKTUA, ezkontzaz kanpoko seme-alabentzako neurrietarako 792/09 prozeduraren ondoriozkoa.

JAKINARAZPEN-ZEDULA

Aipatu prozeduran epaia eman da. Hauek dira idazpurua eta xedapenak:

318/10 EPAIA

Epailea: Begoña Merino Juez.

Lekua: Bilbao (Bizkaia).

Eguna: 2010eko ekainaren 17a.

Alderdi demandatzailea: Cristina Ortega Pavón.

Abokatua: Sánchez Ferrandez.

Prokuradorea: Iglesias Villada.

Alderdi demandatua: Jon Santamaría Cavero.

Abokatua.

Prokuradorea.

Judizioaren gaia: guraso eta seme-alaben arteko harremani buruzko neurriak.

EPAITZA

Baietsi egin dut Iglesias prokuradoreak Cristina Ortega Pavónen izenean eta ordeztu aurkeztu duen demanda, Jon Santamaría Caveroren aurkakoa. Ondorioz, behin betiko ondoko neurriak –lehenago hartutakoak ordeztu dituztenak– erabaki ditut:

Lehenengoa.– Adingabeko Ángela alabaren zaintza eta babespea amari –Cristina Ortega Pavón– izendatzea erabaki da. Guraso-ahala, berriz, nola titularitasunari hala baliatzeari dagokionez, guraso biek partekatuko dute.

Guraso biek guraso-ahala elkarrekin baliatzeak zera dakar: seme-alabei dagozkien erabaki garrantzitsu guztiak guraso biek elkarrekin adostuta hartu beharra, eta, adostasunik ezean, Epaitegira jo beharra, erabaki dezan.

Ondoren zehaztuko diren erabakiak eta horien kidekoak guraso-ahalaren eremuari dagozkio, eta adierazitako moduan hartu beharko dira. Hauek dira: a) Adingabearen helbide-aldaketa, bere udalerritik kanpo bizitzera joanez gero, bai eta atzerrira aldatuz

Administración de Justicia

JUZGADO DE PRIMERA INSTANCIA N.º 6 DE BILBAO

5166

EDICTO dimanante del procedimiento n.º 792/09 seguido sobre medidas hijos extramatrimoniales contencioso.

CÉDULA DE NOTIFICACIÓN

En el procedimiento de referencia se ha dictado sentencia cuyo encabezamiento y parte dispositiva son del tenor literal siguiente:

SENTENCIA N.º 318/10

Juez que la dicta: D.ª Begoña Merino Juez.

Lugar: Bilbao (Bizkaia).

Fecha: 17 de junio de 2010.

Parte Demandante: D.ª Cristina Ortega Pavón.

Abogado: Sr./Sra. Sánchez Ferrandez.

Procurador: Sr./Sra. Iglesias Villada.

Parte Demandada: D. Jon Santamaría Cavero.

Abogado.

Procurador.

Objeto del juicio: medidas paterno filiales.

FALLO

Que, estimando, la demanda interpuesta por la procuradora Sra. Iglesias en nombre y representación de D.ª Cristina Ortega Pavón, frente a D. Jon Santamaría Cavero, debo decretar y decreto la adopción de las siguientes medidas:

Primera.– Se atribuye a la madre D.ª Cristina Ortega Pavón, la guarda y custodia de la hija menor Ángela, siendo la patria potestad, en su titularidad y ejercicio, compartida por ambos padres.

El ejercicio conjunto de la patria potestad por ambos progenitores implica que todas las decisiones de relevancia que afecten a los hijos habrán de ser adoptadas por los dos progenitores de mutuo acuerdo, resolviendo el Juzgado en caso de discrepancia.

Son decisiones comprendidas en el ámbito de la patria potestad, que habrán de tomarse en la forma expresada, las que se enumeran a continuación con carácter indicativo: a) el cambio de domicilio del menor fuera del municipio de su residencia habitual, así

gero ere, opor-bidaia izan ezik; b) ikastetxea hasieran aukeratzea eta ikastetxez aldatzea; c) eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak aukeratzea; d) medikuntza-jarduerak, baldin eta interbentzio kirurgikoa edo medikuntza-tratamendu luzea eskatzen badute eta premiazkotzat jotzen ez badira; eta izaera psikologikoa dutenak ere bai; e) garrantzi handiko ospakizun sozialak eta erlijiosoak, hala nola bataioa, lehen jaun-hartzea eta beste erlijioetako antzeko jarduerak.

Zaintza esleitu ez zaion gurasoak, dena den, ondoko eskubideak izango ditu: bere seme-alabak eskolan nola dabilten jakiteko eta ikastetxearen tutoretzapeko jardueran parte hartzeko; b) bere seme-alaben osasun egoera ezagutu eta har ditzaketen medikuntza-tratamenduen berri izateko.

Bigarrena.— Jon Santamaría Cavero jaunaren alde, alaba bisitatzeko eta harekin egoteko eskubidea ezartzen da, honela:

a) Asteazkenetan bi ordu, adingabeko alaba haurtzaindegitik ateratzen denean.

b) Bi astebururik behin, ostiralean adingabeko haurtzaindegitik ateratzen denetik, igandeko 19:00ak arte.

c) Eguberrietako eta Aste Santuko oporretan adingabekoak aitarekin egingo du lehenengo edo bigarren astea; aitak urte bikoitietan aukeratuko du oporraldia, eta amak bikoitietan.

Udako oporretan hamabost egun egingo ditu adingabekoak aitarekin. Oporraldi hori noiz hartuko duen zaintza duen amari jakinarazi beharko zaio oporrrak hasi baino hamabost egun lehenago.

Adingabekoa Basaurin hartu eta bertan utzi beharko da.

Hirugarrena.— Aitak hilabetean 200 euro ordainduko ditu alabaren mantenu-pentsio moduan. Diru hori aitak amari ordaindu beharko dio, hilabete bat aurrerago, amak horretarako ematen duen kontuzenbakian. Diru-kopuru hori urtero eguneratuko da ebazpen honen eguna erreferentzia hartuta, Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratzen duen KPIK izandako aldakuntzen arabera.

Laugarrena.— Adingabeak izan ditzakeen ezohiko gastuak bi gurasoek erdi bana ordainduko dituzte.

Halakotzat hartuko dira gastu bereziak direnak, hau da, aurreikusitako ezin daitezkeenak eta adingabekoen zaintza, garapen eta prestakuntzarako beharrezko edo komenigarriak direnak arlo guztietan (osasuna, prestakuntza eta aisialdia).

Nolanahi ere, gastua beharrezko edo komenigarritzat jotzeko, aurretik bi gurasoak ados jarri beharko

como su traslado al extranjero, salvo viajes vacacionales; b) elección inicial de centro escolar y cambio del mismo; c) determinación de las actividades extraescolares o complementarias; d) actos médicos que conlleven intervención quirúrgica o tratamiento médico de larga duración y no revistan el carácter de urgentes; así como los de carácter psicológico; e) celebraciones sociales y religiosas de relevancia, tales como Bautismo, Primera Comunión y actos similares de otras religiones.

El progenitor no custodio tiene derecho en todo caso a obtener información sobre: a) la evolución escolar de sus hijos y participar en las actividades tutorales del centro escolar; b) el estado de salud y tratamientos médicos de sus hijos.

Segunda.— Se establece a favor de D. Jon Santamaría Cavero, el derecho de visitar y estar en compañía de su hija:

a) Los miércoles durante un periodo de dos horas, desde la salida de la menor de la guardería.

b) Los fines de semana alternos, desde el viernes desde la salida de la menor de la guardería hasta las 19:00 horas del domingo.

c) Vacaciones de Navidad y Semana Santa, la menor disfrutará en compañía del padre, o bien la primera semana de vacaciones, o bien la segunda semana de vacaciones, eligiendo el padre el periodo a disfrutar los años pares y la madre los años impares.

Vacaciones de verano, la menor pasará 15 días de dicho periodo vacacional en compañía del padre. La elección de dicho periodo vacacional deberá comunicarse a la madre custodia quince días antes del inicio de las vacaciones.

La recogida y entrega de la menor, se realizará en la localidad de Basauri.

Tercera.— Se fija en concepto de atribución de alimentos para la hija la cantidad de 200 euros mensuales, que deberá abonar el padre a la madre en la cuenta bancaria que ella designe al efecto. Dicha cantidad se actualizará anualmente, con referencia a la fecha de esta Resolución, conforme a la variación que experimente el IPC que publique el INE.

Cuarta.— Los gastos de carácter extraordinario que pudiera generar la menor serán sufragados por ambos padres, por mitad.

Tienen la consideración de tales los de carácter excepcional, que no resulten previsibles y sean necesarios o convenientes en Orden al cuidado, desarrollo y formación, en todos los órdenes, de los menores (salud, formación y ocio).

En todo caso, debe preceder acuerdo entre ambos progenitores (salvo supuestos de urgencia) sobre la

dira (premiatzko egoeretan izan ezik) edo, bestela, baimen judiziala beharko da.

Ez da kosturik ezartzen.

Inpugnatzeko modua: Bizkaiko Probintzia Auzitegian apelazio-errekurtsoa jarrita (PZLb 455. artikulua). Errekurtsoa prestatzeko idazkia aurkeztu behar da epaitegi honetan bost egun balioduneko epean, ediktu hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera. Idazki horretan, bestalde, honakoak adieraziko dira: apelatutako ebazpena, errekurrizko nahia eta zein erabaki inpugnatzen den (PZLb, 457.2 artikulua).

Errekurtsoa jarri ahal izateko, 50 euroko gordailua eratu beharko da, eta baldintza hori bete ezean ez da hura izapidetzea onartuko. Gordailua honelaxe gauzatu beharko da: epaitegi honen Gordailu eta Kontsignazioen Kontuan kontsignatuaz aipatu zenbatekoa; kontu hori Banesto (Banco Español de Crédito) taldekoa da, 4710 zenbakikoa; Ordainagiriaren kontzeptua idazteko hutsunean, «errekurtsoa» dela adierazi beharko da (kodea: 02-Apelazioa. Errekurtsoa prestatzerakoan egiaztatu egin beharko da diru-zenbatekoa zainpean utzi izana (BJLOko 15. xedapen gehigarria).

Errekurtsoa jartzeko, gordailua eratzetik salbuetsita daude aipatutako xedapenaren 5. paragrafoan aipatzen direnak, eta doako laguntza juridikorako eskubi-dea aitortua dutenak.

Eta epai honen bidez erabaki, agindu eta sinatzen dut.

Jon Santamaría Cavero dagoen lekua ezezaguna denez, jakinarazpen-zedularen balioa izan dezan ematen dut hau.

Bilbao (Bizkaia), 2010eko irailaren 20a.

IDAZKARIA.

necesidad o conveniencia del gasto del que se trate o, en su defecto, autorización judicial.

No ha lugar a la imposición de costas.

Modo de impugnación: mediante recurso de apelación ante la Audiencia Provincial de Bizkaia (artículo 455 LECn). El recurso se preparará por medio de escrito presentado en este Juzgado en el plazo de cinco días hábiles contados desde el día siguiente de la notificación, limitado a citar la Resolución apelada, manifestando la voluntad de recurrir, con expresión de los pronunciamientos que impugna (artículo 457.2 LECn).

Para interponer el recurso será necesaria la constitución de un depósito de 50 euros, sin cuyo requisito no será admitido a trámite. El depósito se constituirá consignando dicho importe en la Cuenta de Depósitos y Consignaciones que este Juzgado tiene abierta en el Grupo Banesto (Banco Español de Crédito) con el número 4710, indicando en el campo concepto del resguardo de ingreso que se trata de un «Recurso» código 02-Apelación. La consignación deberá ser acreditada al preparar el recurso (disposición adicional 15.ª de la LOPJ).

Están exentos de constituir el depósito para recurrir los incluidos en el apartado 5 de la disposición citada y quienes tengan reconocido el derecho a la asistencia jurídica gratuita.

Así por esta sentencia, lo pronuncio, mando y firmo.

Y como consecuencia del ignorado paradero de Jon Santamaría Cavero, se extiende la presente para que sirva de cédula de notificación.

En Bilbao (Bizkaia), a 20 de septiembre de 2010.

EL/LA SECRETARIO.